

Mari Karmen Garmendia

Euskaldunon Egunkaria, 1991-12-10: 2.

Eusko Jaurlaritzan hizkuntz politikarako idazkaria den Mari Karmen Garmendiari egiten dizkiote galdera larriak. Edozein herritan hizkuntzaren ardura nagusi hau erantzukizun handiko lana ba da, gurean zailagoa da. Frantzia "frankofonie" eta Espainian "hispanidad" hitz inperial eta sakratuak dira. Parisen bildu berriak dira munduko frantses mintzadunak espantu haundiarekin. Datorren urterako Espainia ari da prestatzen bere muntaia erraldoia. Harrokeria handiaz bizi dute kolonizatzaileek bere mintzairaren garaipen hau. Baina Euskal Herriak berea demokratikoki defendatzeko permisoa egunero eskatu behar duela dirudi, eta ez dut uste hau legezko denik. Norbaitek eman behar ditu ofizialki erantzun minimoak! Heranegun Mari Karmen Garmendiari prensan egin zizkioten galdera zorrotzen artean honoko hau egin zioten: "Buesa bezalako sozialista bat herri honen Hezkuntzaren buru izateak ez zaitu kezkatzen?" eta Mari Karmenek duintasun haundiz erantzun: "Hezkuntza-sistema bat onartua dago, eta ez dago arrazoirik atzera egiteko; nazionalista batenak ez diren kriterioak erabiltzen baditu ere, legezko den marko barruan joka beharko du, herri honetan bi hizkuntz ofizial ditugula ahaztu gabe"... "Ezin da esan euskal Administrazioak euskarari abantaila gehiegi ematen dionik, zeren eta bentaja horiek errealitate soziala baino % 8 puntu beherago daude oraindik; (...) geure Administrazioan % 17 euskaldun bakarrik dago, nahiz eta egiazko gizartean euskaldunen portzentaia % 25 izan".

Erantzuna ongi emana. Gero bakoitzak aterako ditu berari dagozkion kontuak.